



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Interes soziala deklaratzeko ESKAERA (ESKABIDE ORRIA).
- BABES KONTRATUA: babeslearen eta babestuaren artean sinaturiko kontratuaren kopia kautotua.
- Egin gogo den kirol jarduera AZALTZEN DUEN TXOSTENA (egutegia, eta abar).
- FEDERAZIOAK EMANDAKO LIZENTZIA: fotokopia konpultsatua, kirolariari bakarka emandako babes baldin bada.



EPEA

Eskabidea aurkezteko epea: interes sozialekoa deklaratu nahi den kirol jarduera noiz egiten den, **hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen.**

ADIBIDEAK

- Saskibaloit talde batek 2009/2010 denboraldiko ligan parte hartuko balu, eskabidea aurkezteko epea 2011ko ekainaren 30ean bukatuko litzateke.
- Zikloturismoko jardunaldi bat 2010eko ekainaren 15ean antolatuko balitz, berdin, azkeneko eguna 2011ko ekainaren 30a izanen litzateke.
- Udal batek 2010. urterako kirol jardueren programa prestatuko balu, mugaeguna 2011ko ekainaren 30a litzateke.

OHARRA

Enpresa babesleek nahi badute %30ko kenketa gauzatzea, kontuan hartu beharko dute zein egunetan aurkeztu behar duten sozietateen gaineko zergaren aitorpena, interes soziala deklaratzeko eskaera behar bezain garaiz egiteko. **Adibidez:** Waterpolo talde bat 2010/2011 denboraldian babesten duen enpresak, 2011ko aitortpenean (2010eko ekitaldi ekonomikoari dagokiona), 2011an ordaindutako diru-kopuruengatik kenketa aplikatzeko eskubidea izanen du, eta 2012ko aitortpenean (2011ko ekitaldi ekonomikoari dagokiona) 2011an ordaindutako diru-kopuruengatik; beraz, sozietateen gaineko zergaren 2011ko aitortpena egin aurretik aurkeztu beharko du interes soziala deklaratzeko eskabidea.

KIROL JARDUEREN BABESA

1. ADIBIDEA

Helbidea Tuteran duen "X, S.L." enpresak saskibaloit talde bat babestu du 2010. urtean, 4.000 euro emanda, eta zuzen tramitatu du jardueraren interes sozialeko deklarazioa; sozietateen gaineko zergari dagokion aitortpen hau aurkeztu du:

DIRU-SARRERAK

Salmentak	65.000
Finantza diru-sarrerak	2.100

GUZTIRA	67.100
---------	--------

GASTUAK

Erosketak	43.200
Askotariko gastuak	7.800
BABES KONTRATUA	4.000

GUZTIRA	55.000
---------	--------

ZERGA-OINARRIA	12.100
KARGA-TASA %35 (*)	
KUOTA OSOA	4.325
KIROL BABESEAN INBERTITUTAKOAREN %30EKO KENKETA,	1200

OGASUNARI ORDAINDU BEHARRA	3.125
----------------------------	-------

Beraz, babes kontratuan inbertitutako 4.000 euroengatik, zergadunak bi aldetatik hartzen du ordaina zerga kontuan: batetik, zerga-oinarria murrizten da, enpresa jardueraren gastutzat hartzen baita, eta bestetik, kuota osoan kenketa egiten da, emandako diru-kopuruaren %30.

2. ADIBIDEA

"A" izeneko enpresaburuak, Lizarrako jatetxe baten jabe baita, rallyetako pilotu bat babestu du 2010. urtean, 12.000 euro emanda, eta zuzen tramitatu du jardueraren interes sozialeko deklarazioa; pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokion aitortpen hau aurkeztu du:

DIRU-SARRERAK

Salmentak	132.200
Finantza diru-sarrerak	4.500

GUZTIRA	136.700
---------	---------

GASTUAK

Erosketak	90.100
Soldata eta lansariak	18.000
BABES KONTRATUA	12.000

GUZTIRA	120.100
---------	---------

ZERGA-OINARRIA	16.600
KARGA-TASA	(taulen arabera)
KUOTA OSOA	3.840
KIROL BABESEAN INBERTITUTAKOAREN %30EKO KENKETA,	3.600

OGASUNARI ORDAINDU BEHARRA	240
----------------------------	-----

Beraz, babes kontratuan inbertitutako 12.000 euroengatik, zergadunak bi aldetatik hartzen du ordaina zerga kontuan: batetik, zerga-oinarria murrizten da, enpresa jardueraren gastutzat hartzen baita, eta bestetik, kuota osoan kenketa egiten da, emandako diru-kopuruaren %30.

(*) Entitateari ekitaldi horretan dagokion tasa.

ARGIBIDEAK



NAFARROAKO KIROL INSTITUTUA
ARRIETA k., 25 • 31002 - IRUÑA
Tel. 848 427 891 · mgoldarg@navarra.es

D.L.: NA548/2006



KIROL JARDUEREN BABESA


BEHARREZKO BULTZADA BERRIA

2010 ETA 2011
URTETAN ONURA
FISKAL HANDIAGOAK



Nafarroako
Gobernua

2012 | ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



Abenduaren 29ko 19/2005 Foru Legeak, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeari buruzkoak, babesarengatik kenkariak ezartzen ditu bere bosgarren xedapen gehigarrian. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, interes sozialekoak deklaratuak kirol eta kultura jardueren babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik ordaindu diren kopuruen **100eko 30 kentzen ahalko da kuota likidotik.**

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirol Institutuaren bidez, interes sozialekoak deklaratzeko ahal ditu zenbait kirol jarduera, haien publizitatean inbertsioa egin dadin sustatzeko, trukean desgrabazio fiskal garrantzitsuak emanez, eta, ondorioz, Nafarroako talde eta kirolarientzako finantzabideak lortzeko.

Aipatutako deklarazio horretan zuzeneko interesa duten pertsona, entitate eta erakundeek eskatzen ahal dute interes sozialekoak deklaratzeko.

INTERES SOZIALEKOAK DEKLARA DAITEZKEEN JARDUERAK

- Nazioarteko proba edo lehiaketak.
- Proba edo lehiaketa nazionalak.
- Nafarroako proba edo lehiaketak.
- Nafarroako Kirol Institutuak antolatutako jarduerak.
- Nafarroan antolatzen diren beste kirol jarduera batzuk, kirol maila altuak badira, tradizioko kirol bat errekupeatzeko asmoa badute, gizartean oihartzun handia baldin badute, herritarren parte-hartze handia badute edo interes sozial kualifikatua edukitzeko ezaugarriak baldin badituzte, hori guztia Nafarroako Kirol Institutuaren iritiz.

KONTRATUA ONDOKO ENTITATE HAUETAKO BATEKIN SINA DAITEKE

- Nafarroako Kirol Elkartearen Erregistroan inskribaturik dauden kirol entitateekin (klubak, federazioak, enteak).
- Nafarroan helbideraturik dauden fundazioekin, haien helburuen artean Nafarroako kirola sustatu eta garatzea baldin badago.
- Kirol Federazio batean afiliaturik dauden kirolari nafarrekin.
- Nafarroako toki entitateekin.
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin.
- Intereseko kirol ikuskizun bat antolatu dutela egiaztatzen duten bestelako entitateekin, legez aitortuak baldin badaude (interes hori Nafarroako Kirol Institutuaren iritzaren arabera neurtuko da).

KIROLA BABESTEKO KONTRATU-EREDUAK BEHARREZKO BULKADA



KLUBA / FEDERAZIOA

.....(e)n, 200...ko aren (e)an.

BILDURIK

Alde batetik,(izena eta 2 deitura) jn./and. (adinez nagusi, NANaren jabe), (presidentea, kudeatzailea)..... izan eta ordezkatzeko baitu enpresa (..... IFZ; helbidea –herria, kalea, zenbakia, posta kodea–:), zeina baita entitate babeslea.

Beste aldetik,(izena eta 2 deitura) jn./and. (adinez nagusi, NANaren jabe), (presidentea, kudeatzailea) izan eta ordezkatzeko baitu federazioa/kluba (..... IFZ; helbidea –herria, kalea, zenbakia, posta kodea–:), zeina, Kirol Elkartearen Erregistroan zenbakiarekin inskribatua egonik, entitate babestua baita.

Bi aldeek behar adinako gaitasun legala aitortzen diote elkarri babes-kontratu honetarako, eta honako klausulen arabera gauzatzen dute kontratua

KLAUSULAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

Klubak eta enpresa babesleak adostutako klausulak izan behar dute, baina betiere gutxienez honako gai hauek zehaztuta:

- kontratuaren xedea: babestutako kirol jardueraren izena eta edukia.
- enpresa babesleak egindako diru-ekarpena.
- babestutako klubak truke eskaintzen duena.

Eta adostasunaren erakusgarri, honako kontratua sinatzen dute goian jarritako datan eta tokian.

ENPRESAREN SINADURA ETA ZIGILUA (ORRI GUZTIETAN)

KLUBAREN SINADURA ETA ZIGILUA (ORRI GUZTIETAN)



KIROLARIA (BAKARKA)

.....(e)n, 200...ko aren (e)an.

BILDURIK

Alde batetik,(izena eta 2 deitura) jn./and. (adinez nagusi, NANaren jabe), (presidentea, kudeatzailea)..... izan eta ordezkatzeko baitu enpresa (..... IFZ; helbidea –herria, kalea, zenbakia, posta kodea–:), zeina baita entitate babeslea.

Beste aldetik,(izena eta 2 deitura) jn./and. (adinez nagusi,; NANaren jabe; helbidea –herria, kalea, zenbakia, posta kodea–:), zeina, Nafarroako(e)ko Federazioak emandako lizentziaren jabe izanik, kirolari babestua baita.

Bi aldeek behar adinako gaitasun legala aitortzen diote elkarri babes-kontratu honetarako, eta honako klausulen arabera gauzatzen dute kontratua

KLAUSULAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

Kirolariak eta enpresa babesleak adostutako klausulak izan behar dute, baina betiere gutxienez honako gai hauek zehaztuta:

- kontratuaren xedea: babestutako kirol jardueraren izena eta edukia.
- enpresa babesleak egindako diru-ekarpena.
- babestutako kirolariak truke eskaintzen duena.

Eta adostasunaren erakusgarri, honako kontratua sinatzen dute goian jarritako datan eta tokian.

ENPRESAREN SINADURA ETA ZIGILUA (ORRI GUZTIETAN)

KIROLARIAREN SINADURA (ORRI GUZTIETAN)